

## **13. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 21a**

## **31. ALDIZKARIA - 2025eko otsailaren 14a (tarifaren aldaketa)**

### **5. ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMATEAGATIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUKETAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

#### **OINARRIA**

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

#### **ZERGAPEKO EGINTZA**

2. artikulua. Zergapeko egintza hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematean datza, etxegintzaren eta lurzoruaren erabileraren arloko egintzak indarra duten hirigintza eta eraikuntza araei egokitu ahal izateko.

3. artikulua. Tasa hauei loturiko udal ekintza hirigintzako jarduketa hauetan gauzatzen da:

a) Partikularrek aurkeztu antolamenduko plan partzial edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, aurrerapen azterlanak, antolamenduko planen aurreproiektuak eta birzatiketak tramitatzea edo hirigintzako agiriak aldatzea.

b) Partikularrek aurkeztu urbanizazio proiektuak tramitatzea.

c) Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189. eta 189.ter artikuluetan zehaztutakoak.

d) 22. ordenantzari jarraikiz, hau da, Etxabeak eta/edo biltokiak erabiltzeko administrazio baimena ematea arautzen duenari jarraikiz emandako administrazio baimenak.

#### **ORDAINDU BEHARRA**

4. artikulua.

1. Lizentzia ematean edo zergapeko egintza eratzen duen udal jarduera edo zerbitzua egiten hastean sortzen da ordaindu beharra. Ez da tasarik sortuko Udalak lizentzia emateko erabakia hartu edo kasuan kasuko udal jarduera egin baino lehen interesdunak atzera egiten badu.

2. Plan partzialak edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, birzatiketak eta urbanizazio proiektuak tramitatuz gero, haiek ebatzi edo behin betikoz onesten diren unean sortuko da ordaindu beharra.

3. Iraungirik deklaritzen diren espedienteetarako, edo interesdunak uko egiten badio haien tramitazioari, espedienteak eragin dituen txostenen kostua sorraziko da, ordenantza honen eranskinean ezartzen den zenbatekoaren arabera.

#### ***SUBJEKTU PASIBOA***

5. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez, baina unitate ekonomiko edo ondare berezia diren entitateak, baldin egindako hirigintzako jarduketengatik edo emandako lizentziengandik eragina edo onura hartzen badute.

Ordenantza honetako tasetan, eraikitzaileak eta obretako kontratista hartuko dira zergadunaren ordezkotzat.

#### ***TARIFAK ETA KARGA-TASAK***

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

#### ***LIZENTZIEN TRAMITAZIOA ETA HORIEN ONDORIOAK***

7. artikulua. Hirigintzako jarduketetarako eskabide guztiak HAPOko tramitazioaren ordenantzan eta aplikagarri diren bestelako arauetan ezarritako moduan bete beharko dira.

8. artikulua. Lizentzien iraungipenaren inguruko orotan, HAPOko tramitazioaren ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

#### ***KUDEAKETA ARAUAK***

9. artikulua. Planeamendurako espedienteak eta lizentziak tramitatzeko ardura duten bulegoetatik, udal teknikariek aldeko txostena eman eta gero, zergak likidatuko dituen bulegora igorriko dira espedienteak. Bulego horrek likidazioa egingen du, eta bertan honako hauek aipatuko ditu: subjektu pasiboaren izena, tasa zer kontzepturen arabera likidatzen den, tasaren tarifa eta zenbatekoa.

10. artikulua. Urbanizazio proiektuak tramitatzeko, proiektua onesterakoan egingen da tasen likidazioa.

11. artikulua. Tasak behin-behinekoz likidatuko dira obraren kostuaren arabera.

Obraren kostua zehaztuko da hura gauzatzeko aurrekontuaren arabera, ordainsariak eta industria mozkina salbu.

Barne urbanizaziorako proiektuaren zenbatekoa tasaren zerga-oinarriaren elementu bat da. Horretarako, interesdunek barne urbanizaziorako proiektua aurkeztu beharko dute, aurrekontu eguneratuarekin batera.

12. artikulua. Obra burutu edo behin-behinekoz onartu eta hurrengo hilabetean, inguruabar hori ziurtatzen duen aitopena aurkeztuko da, obraren zuzendariak emandako ziurtagiriarekin batera, behar den elkargo profesionalak ikus-onetsia, bideragarria bada, zeinak obraren kostu osoa ziurtatuko baitu.

Aipatutako kostua udal teknikariek aztertuko dute eta errealitateari ez zaiola egokitzen ikusten badute, egokitzen saiatuko dira, eta behin betiko likidazioa egingen da, obren kostu erreal eta benetakoa oinarritzat hartuz.

Partikularren aldeko diferentziarik izanez gero, itzuli egingen zaio; Udalaren aldekoa bada, berriz, hura ordaintzeko hilabeteko epea emanen zaio. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratuko da, besterik gabe.

13. artikulua. Tasen likidazioa onetsi eta gero, interesdunari jakinaraziko zaio, erregelamenduzko epean tasak ordain ditzan.

14. artikulua. "Tramitazio laburreko" lizentzien kasuan, eskatzaileak Udal Diruzaintzako Departamentutik hartuko du baimenaren agiria. Horrela geratuko da lizentziaz eta haren aplikazioaz jabeturik.

#### **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

15. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

### **2025EKO TARIFEN ERANSKINA**

#### **TARIFAK 2025**

**(euroak)**

##### **I. epigrafea.–Antolamendurako plan partzialen edo berezien izapidetzea edo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko (HAPO) aldaketak izapidetzea**

Plan bakoitzak zenbat lur azalera hartzen duen, horrexen arabera likidatuko dira espediente bakoitzaren izapidetzeari eta ebazpenari dagozkien tasak. 1.000 m <sup>2</sup> edo horren zati bakoitzeko	75,00
---	-------

##### **II. epigrafea.–Plan partzialen edo berezien aldaketak eta xehetasun-azterketak izapidetzea.**

Aplikatu beharreko tarifak I. epigrafean jasotakoaren %50 izanen dira

##### **III. epigrafea.–Birpartzelazioak izapidetzea.**

III-A) Guztirako aprobetxamendutik zenbateko azalera edo bolumena den eraikitzeo, haren arabera izanen da tasen likidazioa birpartzelazio espediente bakoitza izapidetzeko eta ebazteko, honako tarifa hauei jarraikiz:

-1.000 m <sup>2</sup> edo horren zati bakoitzeko	75,00
-1.000 m <sup>3</sup> edo horren zati bakoitzeko	221,00
III-B) Birpartzelazioen aldaketak izapidetzea: tarifak, III-A epigrafean ezarritakoen %50 izanen dira	
<b>IV. epigrafea.–Eskatzaileek egindako urbanizazio proiektuak izapidetzea.</b>	
Tasak proiektuaren kostuaren arabera likidatuko dira, eta karga tasa %1,50 izanen da	
<b>V. epigrafea.–Lizentziak eta beste jarduketa batzuk</b>	
V 1.–Partzelazio-lizentziak:	
Partzelazio-lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteko tasak azaleraren arabera likidatuko dira:	
-1.000 m <sup>2</sup> edo horren zati bakoitzeko	48,00
V 2.–Izapidetze laburreko obra-lizentzia edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa behar duten jarduketak.	
Lizentzia emateko espediente bakoitza izapidetu eta ebazteagatik honako tasa hau sortuko da:	
-Zerga-oinarria 100.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa bada	%2,20
-Zerga-oinarria 100.000,00 euro baino handiagoa bada eta 1.000.000,00 euro edo txikiagoa	
• Lehen 100.000,00 euroak	%2,20 (2.200,00 euro)
• 100.000,00 eurotik gora, zerga-oinarri osoraino	%1,00
-Zerga-oinarria 1.000.000,00 eurotik gorakoa bada	
• Lehen 100.000,00 euroak	%2,20 (2.200,00 euro)
• 100.000,00 eurotik 1.000.000,00 euroraino	%1,00 (9.000,00 euro)

• 1.000.000,00 eurotik gora, zerga-oinarri osoraino	%0,50
<p>V 3.–Eraispen obretarako, eraikitzeke, zaharberritzeko, instalazioetarako, arbolak botatzeko, errotuluak paratu eta ordezteko, balkoiak ixteko eta lizentzia behar duten gainerako egintzetarako lizentziak, baldin eta aurreko ataletan ez badaude</p> <p>Tasa honen kuota kalkulatzeko, 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz zehaztutako zerga-oinarriari honako karga-tasa hauek aplikatuko zaizkio modu progresiboan:</p>	
–Zerga-oinarria 100.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa bada	%2,20
–Zerga-oinarria 100.000,00 euro baino handiagoa bada eta 1.000.000,00 euro edo txikiagoa:	
• Lehen 100.000,00 euroak	%2,20 (2.200,00 euro)
• 100.000,00 eurotik gora, zerga-oinarri osoraino	%1,00
–Zerga-oinarria 1.000.000,00 eurotik gorakoa bada	
• Lehen 100.000,00 euroak	%2,20 (2.200,00 euro)
• 100.000,00 eurotik 1.000.000,00 euroraino	%1,00 (9.000,00 euro)
• 1.000.000,00 eurotik gora, zerga-oinarri osoraino	% 0,50
<p>V.4.–Lizentziak, eraikinak eta instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeagatik:</p>	
Lizentzia emateko espediente bakoitza tramitatu eta ebazteagatik honako tasa hau sortuko da	725,00
100 m <sup>2</sup> baino handiagoko azalera erabilgarria duten lokalengatik, gainera, azalera erabilgarriko m <sup>2</sup> bakoitzagatik kobratuko da	0,55
<p><b>VI. epigrafea.–Gutxieneko eskubideak.</b></p> <p>Baldin aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak badira gutxieneko zenbateko haietatik beherakoak, honako hauek ordaindu beharko dira:</p>	
–Izapidetzea plan partzialak edo bereziak	463,00

–Izapidetzea plan partzialen edo berezien eta xehetasun-azterketen aldaketak	232,00
–Birpartzelazioak	463,00
–Partzelazioak (lurzati edo partzela bakoitzeko)	58,00
–V.2 eta V.3 epigrafeetako obra lizentziak eta beste jarduketa batzuk	Ez da ezartzen gutxienezko eskubiderik
<b>VII. epigrafea.–Administrazio-baimenak.</b>	
Prezioa m <sup>2</sup> bakoitzeko	
50 m <sup>2</sup> -ra bitarte	8,50
51 eta 100 m <sup>2</sup> artean	7,00
101 eta 400 m <sup>2</sup> artean	6,00
401 eta 1.000 m <sup>2</sup> artean	5,00
1.000 m <sup>2</sup> -tik gora	4,00
<b>VIII. epigrafea.–Txosten teknikoak egitea espediente iraungietan edo interesdunak haien tramitazioari uko egiten dionetan.</b>	
Txosten bakoitzeko	60,00